



Langile bat hil da lan istripu baten ondorioz Urruñan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 07/09/2023

Urte hasi zenetik 34 langile galdu dute bizitza Euskal Herrian.

Irailaren 6an 50 urteko gizon batek galdu du bizitza Urruñan lanean zegoenean istripu baten ondorioz. Langile hau jaioterriz Costa de Marfilekoa zen eta 2019an heldu zen Euskal Herrira non bere emazte eta semeekin bizi zen. Atzo eraikuntzan lanean zebilela hondeamakina bat buelta heman eta lurrera bota zuen hau, azpian arrapatuz.

Euskal Herrian urtea hasi zenetik 34 langile galdu dute bizitza bere soldatape lanaren ondorioz eta konkretuki 3 Ipar Euskal Herrian.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/langile-bat-hil-da-lan